

ANOETA / ... egia ala gezurra... bi begien artean sudurra!

ANOETA. DV. Arratsaldeko seiretarako egina zuten hitzordua baina seiretako kanpaiak entzun baino lehen bazen iada haur bat baino gehiago liburutegiko atarian, ipuin kontaketa noiz hasiko zain. Maite Frankok, ordea, ez zien gehiegi itxaron arazi, seietan puntuan ireki baitzen liburutegiko atea. Lau eta bost urteko ume talde polita bildu zen Maiteren ipuinak entzutera, hain zuzen ere, adin horretako haurrei zuzendu baitzien saioa. Xabat izeneko mutiko baten istorioarekin hasi zuen saioa ipuin kontalariak, neguko hotzari aurre egiteko sua pizten ari zela, giltza bat aurkitu zuen mutikoaren istorioarekin hain zuzen ere. Giltza horrek kutxa bat irekitzeko balio zuen eta zer aurkituko Xabatek kutxa barruan eta ipuin mordo bat! Ipuin horietako batzuk kontatu zizkien atzokoan Maitek Anoetako haurrei.

Baina ipuinak entzuteaz gain, buruari ere eragin behar izan zioten txikiek, Maitek asmakizun batzuk ere proposatu baitzizkien. Lurrean trakets, uretan jaioa, etxea dauka izotzezkoa, zer ote da?.

Horixe izan zen asmakizunetako bat. Pinguinoa!, erantzun zuten ia guztiek batera. Baina ez zen hori erantzun zuzena. Ez, baina laguna du pinguinoa, bota zien pista gisara Maitek. Beste pinguinoa!, bota zuen haurretako batek. Ez da ba beste pinguinoa ere, Maiteren erantzuna. Halako batean fo...., entzun zen. Nork esan du fo....? galdetzea nahikoa izan zuen Maitek guztiek batera Foka!! oihukatzeke. Bai, foka zen asmatu beharreko animalia.

Euskal Herri osoan zehar

Irundarra da Maite Franko eta hiru urte daramatza ipuinak kontatzen. Hiru urte geratu ere egin gabe, Euskal Herri osoan zehar umeei istorioak kontatzen. Etxean hartu omen zuen ipuin kontaketarako zaletasuna. Etxean ilobei ipuinak kontatzen nizkien eta orduan hasi nintzen kontu honi gustua hartzen. Gainera, gure ama ere nahiko ipuinzalea da. Etxean zazpi anai-arreba gara eta txikitatik ipuin asko kontatu izan dizkigu, azaldu zuen Maitek. Horrela, pixkanaka bere kasa mugitzen hasi zen eta ordutik gelditu ere egin gabe dabil. Datu gisa, aipatu, denbora honetan 400 emanaldi inguru egin dituela. Esan bezala, Euskal Herri osoan ibiltzen da eta aurten Huesca eta Errioxa aldera joaten hasiko omen da.

Ipuin kontaketa saio bat prestatzerakoan kontutan hartu beharreko lehenengo gauza umeen adina izaten da. Adibidez, atzoko bezelako saio batean, 4-5 urte bitarteko umeei zuzendurikoan, animalien ipuinak izan ohi dira nagusi.

Txiki txikientzako, 3-5 urte inguruko haurrentzako, animaliei buruzko ipuinak bilatzen ditut horiek baitira beraiei gehien gustatzen zaizkienak. Gero 6 urtetik gorakoei, ikaragarri gustatzen zaizkie ipuin harrigarriak edo miresgarriak, sekulako balentriak gainditu behar dituzten heroiak dituztenak. Haundiagoentzako, berriz, ohiturazko ipuinak erabiltzen ditut, ipuin ironikoak, komikoak, beldurrezkoak, satirikoak,... heldutasun puntu bat eskatzen dutenak.

Maitek hori guztia sartzen du maletatxoan eta gero, duen publikoaren arabera, batetik bestera salto eginez joango da, saioa denen gustukoa izan dadin. Horrelaxe lortzen du, ume guztiak adi adi berari begira egotea.